

## **#SoyMayorSoyComoTú**

### **Adinekoen eskubide-berdintasuna eta duintasuna bermatzea agenda politiko eta sozialaren lehentasuna izan behar da**

Adineko pertsonen eskubideen eta ongizatearen alde lan egiten duten erakundeek bat egiten dute egungo krisiak adinagatiko diskriminazioa are gehiago larriagotu duela salatzen.

- Grandes Amigosek, Fundación Pilares para la autonomía personalak, Envejecimiento en Redek, HelpAge International Españak y Matia Fundazioak adierazi dutenez, Covid-19k erakutsi du adinagatiko diskriminazio handia dagoela, eta horrek eragotzi egiten diela adinekoei eskubide oinarritzkoen aukera-berdintasunean eskuratzea.
- Bideo eta manifestu baten bidez, erakundeek zaintza-eredua eraldatu behar dela adierazi dute, ingurune lagunkoia eta gizarte inklusiboagoak sortzeko lan egin behar dela, eta lege-esparru sendoa eta adinekoen eskubideak eta duintasuna babesteko dituzten neurri espezifikoak izan behar direla.

**Urriaren 1a Adinekoen Nazioarteko Eguna** deklarazioak 30 urte bete ditu, Covid19ak adinekoen eskubideetan eta bizitzan izan duen eragina dela medio. Espainian eta Nazioarteko Zuzenbidean adinagatiko diskriminaziorik ezaren eta berdintasunaren printzipioak onartuta dauden arren, adinekoen eskubideei buruzko aipamen espezifikoak hainbat itun eta akordiotan sakabanatuta daude. Bizi dugun osasun-, gizarte- eta ekonomia-krisiak argi utzi du oraindik **oso urrun gaudela benetako berdintasuna lortzetik, eta adinekoen eskubideei berriaz helduko dien legeria bat** izan behar dugula, adinagatiko diskriminazioaren aurka lan egiteko eta gure sistemaren egiturazko arazoak konpontzeko.

Gainera, azken hilabeteetan zahartzaroa ahultasunari eta gaixotasunari lotuta dagoela egiaztatu ahal izan dugu oraindik ere, **eta balio sozial txikiagoa ematen zaiola adinekoen bizitzari, sakrifikagarriak balira bezala**. Hala ere, gogoan izan behar dugu **gure duintasuna eta eskubideak ez direla murrizten urteak pasa ahala, eta adinak ezin duela ezein bizitzaren balioa neurtu**. Horregatik, [5 erakunde sinatzaileek abiarazitako #SoyMayorSoyComoTú kanpainaren laugarren edizioak](#) herritarrak sentsibilizatu nahi ditu adinagatiko diskriminazioaren inguruan, **eta botere publikoei adierazi nahi die zahartzea eta adinekoen eskubideak lehentasunezko gai bihurtu behar direla agenda politikoan eta sozialean**. Aurten, gainera, CSICeko Filosofia Institutuak ere kanpainan parte hartu du.

#### **ZAINTZAK GIZARTE-BETEBEHAR BEZELA BIHURTZEA**

Bizi dugun krisiak agerian utzi ditu adinekoentzako ostatuaren eredu tradizionalak dituen gabezia ugariak. **Egoitzak etxe bihurtu beharko lirateke, bizitzeko leku, non bertan bizi diren pertsonen osasuna ez ezik, zorientasuna ere zaintzen den**. Ildo horretan, zaintza-guneetan bizi direnak babesteko hartutako neurriek orekatuak izan behar dute, eta **osasuna eta autonomia uztartu behar dituzte**, betiere pertsonen erabakitze gaitasuna bultzatuz. Gainera, inoiz baino premiazkoagoa da **osasun-zerbitzuen eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa handitzea, egoitza-zentro batean bizi direnek bermatuta izan dezaten osasun-arreta publikoa baldintza berdinetan jasotzeko eskubidea, lehen mailakoa zein espezializatua**.

Komunikabideek egoitzetan jarri dute arreta, egoitza-zentroetan hildako pertsonen kopuru handia dela eta, baina **ezin ditugu ahaztu etxeetako zaintzak eta laguntza**. Adineko pertsona gehienak beren etxeetan bizi dira, eta **horietako asko bakardade-egoeran daude, edo zaintzak eta laguntzak behar dituzte; kasu askotan, etxean arreta ematen duten profesionalen kutsaduragatik**, eguneko zentroen itxieragatik eta senideen eta boluntarioen bisiten murrizketa behartuagatik utzi diote horiek jasotzeari edo murriztu egin dira.

Garrantzitsua da gogoratzea adinekoek etxean, auzoan, herrian bizitzen jarraitu nahi dutela. Horregatik, **etxeko arretarako zerbitzu soziosanitarioak eraldatu eta hobetu** behar ditugu, familia-arretarekin osatuko direnak genero-ikuspegitik, eta komunitateko baliabideak ere integratuko dituztenak. **Ikerketek erakusten dute zainketek, pertsonengan integratuta eta zentratuta, bizi-kalitate hobea eskaintzen dutela, beharrezkoak ez diren instituzionalizazioak saihesten dituztela eta eraginkorragoak direla diru-kutxa publikoarentzat.**

## **ESKUBIDEAK ETA DUINTASUNA GIZARTEAN PARTE HARTZEAN**

**Covid-19k ezarritako urruntze fisikoak bakardadea, arbuioa eta gizarte-bazterketako egoerak areagotu ditu, gero eta adineko gehiagok egunero aurre egin behar dietenak.** Isolamendu luzeak osasun fisiko eta mentalari, ongizateari eta duintasunari eragiten die. Antsietatea, depresioa, desorientazioa, narriadura kognitiboa, sedentarisismoa, mugikortasunaren eta muskulu-masaren galera, nekea, ondorio horietako batzuk baino ez dira, eta arazo kronikoen eta mendekotasun-egoera berrien agerpena areagotzen laguntzen dute. Inoiz baino beharrezkoagoa da **auzo-laguntzako eta boluntariotzako sareak bultzatzea, eta zahartzearekin lagunkoiak diren auzo eta etxebizitzak diseinatzea.**

**#SoyMayorSoyComoTú** kanpainaren bidez, **adinekoek gizarte osoari egiten dioten ekarpen handia balioetsi nahi da, eta zahartzaroari buruz dauden estereotipoak eta aurreiritziak desmuntatu.** Izan ere, osasun- eta gizarte-krisiak gehien kaltetu dituen pertsonak izan arren, adinekoek **erresilientzia, zuhurtzia eta diziplina irakatsi dituzte**, eta hainbat azterlanek, hala nola lagun handiek egindakoek, pandemiaren hilabeteetan egokitzeko gaitasun handia erakusten dute.

Asistentzia-sare egokia izatea osasun- eta hezkuntza-sistema ona izatea bezain funtsezkoa da. **Erakunde publikoek behar diren baliabideak eta laguntzak bermatu behar dituzte, eta pertsona guztien ongizatea sustatzeko neurriak ezarri behar dituzte, haien adina edozein dela ere.**

**Pandemian zehar bizitako guztia gure mundua hobetzeko aukera bihurtu behar da,** belaunaldien arteko topaketaren eta lankidetzaren beharretik abiatuta. Dibertsitatea eta adinekoek gizarteari egiten dioten ekarpena baloratzeko unea da, eta jaiotzen garen egunean hasten den prozesu honetan lortzen ari garen biografia, **esperientzia eta egokitzeko gaitasuna bezalako alderdiak kontuan hartzeko unea, hala nola denboraren igarotzea, nola zahartzea, hala bizitzea.**

- Kanpainaren web orriaren esteka: <https://soymayorsoycomotu.com>
- Kanpainaren bideoa deskargatzeko esteka:
- Kanpainaren manifestura sartzeko esteka:

## ¿QUIÉNES SOMOS?



**Fundación Pilares para la autonomía personal** irabazi-asmorik gabeko estatu mailako erakundea da, eta gizartea hobetzen laguntzea du xede, bizitzan zehar duintasuna mantentzen lagunduz, berrikuntzaren, ezagutzaren eta lankidetzaren bidez. Gizarte-arloan programak eta zerbitzuak garatzen ditu egoera ahulean dauden pertsonen (adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak, etab.) bizi-kalitatea areagotzeko, eta irtenbide integral eta pertsonalizatuak ematen ditu, pertsonen autonomia eta bizitza duina izateko eskubideak babesteko. Arreta Integralaren Eredua eta pertsonan Sartzeko Eredua (MAICP) sustatzen ditu.

**Kontaktua:** Emma Garrido - [comunicacion@fundacionpilares.org](mailto:comunicacion@fundacionpilares.org) / 663 049 495



**Grandes Amigos** boluntariotzako eta irabazi-asmorik gabeko GKE bat da, eta nahi gabeko bakardadea eta adineko pertsonen isolamendua arintzeko borrokatzen du, boluntarioen konpainiaren, afektuaren eta adiskidetasunaren bidez. Gure laguntza- eta gizarteratze-programei esker, adinekoen osasuna, ongizatea eta duintasuna hobetzen laguntzen dugu. Gainera, adinekoen ahalduntzearen alde sentibilizatzen gara adin-estereotipoen aurrean, bakardade-egoerak elikatzen baitituzte

**Kontaktua:** [comunicacion@grandesamigos.org](mailto:comunicacion@grandesamigos.org) / 689 632 982



**Envejecimiento en Red, EnR?** web plataforma kolaboratiboa da, zahartzeari eta adinekoei buruzko zientzia-gizarte topagunea. Eremu honetan interesa duten eragileen interakziorako gunea, heterogeneoa eta diziplina anitzekoa. “EnR?” CSIC Fundazio Orokorraren eta CSICeko Ekonomia, Geografia eta Demografiaren Institutuaren (IEGD) arteko lankidetzatik sortu zen, zahartzearen arloko ikerketa eta berrikuntzari buruzko ezagutzan eta informazioan (egiaztatua, zorrotza eta kalitatezkoa) erreferente izateko bokazioarekin, bai pertsonalari bai biztanleriari dagokienez, dokumentu- eta multimedia-oinarri garrantzitsuarekin.

**Kontaktua:** [envejecimientoenred@cchs.csic.es](mailto:envejecimientoenred@cchs.csic.es) / 639181909



**Matia Fundazioa** irabazi-asmorik gabeko fundazio pribatua da, interes orokorrekoa, eta 130 urtetik gorako esperientzia du. Erreferente bat da Gipuzkoan adineko pertsonen ematen zaien arretan eta zahartzearen ikerketan, maila nazionalen eta nazioartekoan. 2002an, ikerketa-institutu bat sortzea erabaki zuen (Matia Institutua), ikerketa/ekintza integratzea eta ebidentzian eta eguneroko jardunean oinarritutako ezagutza sortzea errazten duena. Pertsona ardatz duen arretaren printzipioak landuz, helburua da pertsonen zahartze-prozesuan laguntzea, haien ongizatea hobetzeko, haien autonomia eta duintasuna sustatuko duten ezagutza eta zerbitzu pertsonalizatuak sortuz.

**Kontaktua:** Gorka Alias - [gorka.alias@matiafundazioa.eus](mailto:gorka.alias@matiafundazioa.eus) / 636019170



**HelpAge International España** HelpAge International erakundeko kide da. 2008an sortu zen, Espainiako herritarrak adinekoen beharrezan inguruan kontzientziatzeko eta sarearen nazioarteko lankidetzako eta laguntza humanitarioko proiektuak finantzatzen laguntzeko helburuarekin. Kontzientziazioaren, sentibilizazioaren eta prestakuntzaren bidez lan egiten dugu, adinekoek beren eskubideak ezagutu eta erreklamatu ditzaten eta diskriminazioari aurre egin diezaizoten. Halaber, adinekoen errealitatearekin eta eskubideekin maila guztietako gizarte lagunkoi eta sentibera eraikitze lan egiten dugu.

**Kontaktua:** Inma Mora Sánchez – [inma.mora@helpage-espana.org](mailto:inma.mora@helpage-espana.org) / 660974295